# LAN BATZORDE IREKIAK

| | |
|---|---|
| ***TALDEA*** | **KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENA** |

| | | | |
|---|---|---|---|
| ***IRAUPENA*** | **1.5ordu** | ***EGUNA*** | **2016-06-13** |
| ***GAIA*** | | ***DEIALDIA*** | |

## *PARTE HARTZAILEAK*

| | | | |
|---|---|---|---|
| Jexux Gorrotxategi | Leire Murua | **Ezin agertua adierazi dute:** | |
| Iñigo Igartzabal | | Xabat Goikoetxea | |
| Talex | | Endika Igarzabal | |
| Iñaki Etxezarreta | | | |

## *ERABAKIAK*

| *GAIA* | *EKINTZAK* | *ARDURADURA* | *NOIZKO* |
|---|---|---|---|
| **UDALEKO WEBGUNEA** | Udaleko webgunea oso zaharkitua zegoenez, berritze lanetan hastea erabaki genuen. Berritzea baino errazagoa eta merkeagoa zenez berria egitea aurrekontuak eskatzen hasi ginen. Diru laguntzen zain egon gara baina presazkoa dela iruditzen zaigu.<br><br>Gattiken-ekoekin hitz egin genuen eta Wordpress estiloan egitea erabaki genuen. Beraien aurrekontua 2178€ da.<br><br>Proiektu hau martxan jartzea erabaki dugu eta jasotzen duen erantzunaren arabera, Gabiriako beste elkarteek bertan idazteko aukera jartzea planteatzen da. | | |
| **AKUILU LANAK** | OBRAK:<br><br>- Gas sarea herri gunean sartzea posible omen da baina bi urteko epea behar da martxan jartzeko.<br><br>- Fibra optikoa Aztiri eta Alegi auzoetan sartu da eta Gabirian bertan ere sartzen hasi dira.<br><br>ONGIZATEA<br><br>- Medikuaren ordutegia luzatzea eskatu zen baina galtzeko arriskuagatik ezer ez egitea erabaki da.<br><br>- Erizain zerbitzua: hitzarmen bat sinatu da. | | |
| **GAZTETXOEKIN TOPAKETA DIDAKTIKOA** | Irailerako uztea erabaki da. | IÑIGO<br><br>LEIRE | |
| **AUTOBUS ZERBITZUA** | Goiekikoekin bilera bat izan genuen autobus zerbitzuaren arazoei buruz hitz egiteko.<br><br>Beraiek proposatzen dizkiguten aukeren zain jarraitzen dugu. | | |

**HURRENGO BILERA ZEHAZTU GABE, IRAILEAN IZANGO DA BAINA ORAINDIK EZ DAKIGU ZEHAZKI NOIZ.**